

LEKUAN LEKUKO anboto

TESTIGANTZA

Flotillako kide batek bizi izandakoaren testigantza eman du Elorrion

Gazako flotillako Patxi Calleirasek Israelen eta Loiuko aireportuan bizi izandakoak kontatu ditu Arriolako berbaldian. / 4



Flotillako kideak Elorriko hitzaldian.

LITERATURA

Markel Sanchez durangarrak bere lehenengo nobela kaleratu du: 'Sorbatza'

Durangoko Hitz liburu dendan aurkeztuko du, ekainaren 5ean, 19:00etan / 22



EKITALDIA

Zornotzan Kantuz egitasmoak ehunka kantuzale batuko ditu gaur, bosgarren urteurrenean / 5

UMOREA

Ane Lindane umoregileak bakarrizketa saioa egingo du Abadiñoko Mendiola auzoan / 6

Nahikari Cayado 'Todo lo que no viste' eskuetan duela.



"Min kronikoa ikusezina da, baina benetakoa"

Zebrabide batean auto batek harrapatu zuenetik, Nahikari Cayado minagaz bizi da. Bizi izandako kalbarioa eta bere burua berreraikitze prozesua liburu batean jaso ditu. / 2-3

UDA GEHIGARRIA / 11



UrkiOil
E.S. Otzandio - E.S. Iurtza

UrkiOil gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotoak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA
📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

UNAI GARAY

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



Círculo Rojo argitaletxeagaz argitaratu du liburua.

"Nire torturarik handiena izan da ezin nintzela istripuaren aurreko Nahikari izan"

NAHIKARI CAYADO MALLEA 'TODO LO QUE NO VISTE' LIBURUA IDATZI DU

2017an auto batek jo zuenetik, min kronikoagaz bizi da. Istripuaren ondorengo bizipenak eta gauditze prozesua liburu batean kontatu ditu

Joseba Derteano DURANGO

2017ko abenduaren 6a. Nahikari Cayado Malleak (Durango, 1989) sekula ahaztuko ez duen data da. Auto batek zebrabide batean harrapatu zuen, eta harezkeron min kronikoagaz bizi da. Urtetan bizitako kalbariotik eta esperientziatik abiatuta, *Todo lo que no viste* liburua ondu du Círculo Rojo argitaletxeagaz. Kanpotik ikusten ez den minari, inguruko mesfidantzari eta norbere burua berreraikitze prozesuari buruz idatzi du liburuan.

Zelan gogoratzen duzu istripuko egun latz hura?

2017ko abenduaren 6a zen. Egunduen buruan ondo grabatuta dut. Egunduen horretara arte inoiz ez nuen izan minik. Harezkeron, min kronikoagaz bizi naiz. Durangoko Azoka zen eta Ahotsean kontzertu bat ikusten

nengoen. 20:00ak ziren eta "beste abesti bat eta etxera" eskatuta nion bikotekideari, hurrengo egunean lana nuelako. Matienara joan ginen, bikotekidearen etxera. Zebrabide batean geunden. Ezkerretara begiratu eta kotxe bat ikusi nuen, baina zebrabidearen aurretik biribilgune batetik pasatu behar zen. Biribilgunean abiadura mantso-tuko zuela pentsatu nuen, baina ez. Zuzen etorri eta biok jo gintuen. Bueno, zehatzago esanda, ni jo ninduen, eta nik nire bikotekidea. Neuk hartu nuen kolperik handiena. Metro batzuetan auto gainean joan nintzen, burua kapota gainean. Segundak izan ziren, baina orduak iruditu zitzaizkidan. Bat-batean sikuan frenatu zuen eta errepidera jausi nintzen. Mokorrean kolpe handia hartu nuen. Kolpe horretatik ez naiz

osatu oraindino. Ebakuntza bat egin didate, baina beste bat egiteko zain nago. Odisea bat bizitzen nabil.

Esperientzia horren ondorioa da 'Todo lo que no viste'. Zer da gainerakook ikusi ez duguna?

Izenburua hainbat ideia adierazten duen berba joko bat da. Alde batetik, gau hartan auto gidariak ez zion aurreko kristalari lausoa kendu, itsuan hartu zuen kotxea eta ez gintuen ikusi. Horrez gainera, medikuek urte asko behar izan zuten diagnostiko zuzena emateko. Hau da, ez zuten ikusi benetan zer neukan. Ondorioz, lesioa okerrera joan zen apurka. Baina izenburuak honako honi egiten dio erreferentzia batez ere: lesioa kanpotik ikusten ez bada, igeltsuagaz ez bazaude esaterako, ematen du ez dela existitzen; hau da, ikusezina da. Makillatzen zara, aurpegian irribarre bat

marrazten duzu eta ematen du ondo zaudela, baina ez da horrela. Jendeak ez daki gauetan minagaz itzartzen naizela eta ezin dudala lo ondo egin. Edo ezin dudala gidatu, ezin naizela hondartzan hare gainean lasai ibili. Hori egiten badut, minagaz egongo naiz egunetan. Berdin mendira banoa edo eskaileta maila asko igotzen badut. Mokorrean ez ezik, orno zerbikaletan ere izaten dut mina, nerbio bat pitzutatuta daukadalako. Baina ikusten ez den hori ez dago minari lotuta bakarrik. Arlo ekonomikoa ere badago: oraingoz, 30.000 euro baino gehiago gastatu ditut errekupeazioan. Hamar traumatologo izan ditut, Osakidetzakoak eta aseguru pribatukoak batuz gero. Eta ondorio psikologikoak ere kontuan hartu behar dira. Horiek ere ez dira ikusten, baina hortxe daude. Zebrabide bat pasatu aurretik, bost bider pentsatzen dut hortik igaro ala beste batera joan. Nagoen tokitik etxera joateko, mapa mentalak egiten ditut, zebrabide gutxiagoko bidea zein den jakiteko.

Zergaitik erabaki zenuen zure esperientzia liburu batean azaltzea? Terapia legez hasi nintzen idazten. Barrua husteko modua zen. Momentu batean konturatu nintzen minean baino ez nuela ipintzen arreta. Paseo batetik bueltan baten batek zelan ibili nintzen galdetuz gero, erantzuna minari loturikoa zen beti, eta ez, esaterako, bidean ikusitako paisaia ederraren ingurukoa. Minak hartzen zuen nire pentsamendu osoa. Orduan, apurka jabetu nintzen Nahikari ez zela hori bakarrik, askoz gehiago zela. Apurka norbere barruan garatzen doan onartze prozesua da, ez dago-eta gidalibururik honi guzti honi aurre zelan egin erakusten dizunik. Biktima babesik barik dago. Beraz, horixe izan da liburua idazteko arrazoiatariko bat. Bizitzari alde positiboago batetik begiratzeko balio izan didaten trukoak, ariketak eta aholkuak ere jasotzen ditut liburuan.

Antzeko egoeran daudenei laguntza ematea da liburua idazteko beste arrazoiatariko bat. Izan ere, egoera berean jende asko dagoela konturatu naiz, etxean eta isilean sufritzen dutenak. Eta, jakina, ikusten ez denez, ematen du min kronikoa ez dela existitzen. Baina ez da horrela, mina benetakoa da. Alde horretatik, liburua idaztea

sentimendu liberatzailea izan da eta badakit beste batentzat helduleku bat izan daitekeela. Liburua irakurri eta gero, batzuek eskerrak eman dizkidate, lagungarri izan zaielako.

Zuretzat idatzi duzu, terapia legez, eta baita antzeko egoeran daudenei laguntzeko ere. Nik beste publiko bat ere ikusten dut, ingurukoak; hau da, min kronikoagaz bizi denak inguruan duen jendea.

Bai. Eta, alde horretatik, liburuagaitik eskerrak eman dizkidanetarikoa bat inguruko pertsona bat da. Bere bikotekideak gaixotasun kroniko bat du eta esan dit liburu honi eskerrak hari zelan lagundu ikasi duela. Baina hartu-eman honetan, ulermen norabide bietakoa izan behar da. Hau da, ezin diot neure bikotekideari eskatu nire erizaina izatea eguneko 24 orduetan. Ez da justua, nire bizitza aldatu den moduan berea ere aldatu delako. Besteak ere sufritzen du zu sufritzen ikusita. Ez naiz psikologoa, baina nire esperientziatik abiatuta, liburuan ahalegindu naiz azaltzen zelan jokatu zure ingurukoek hainbeste sufritu ez dezaten.

Zuk zeuk zelan bizi izan zenuen ingurukoek tratua? Zer jaso zenuen eta zeren falta igarri zenuen?

Bost urte medikurik mediku eman nituen. Esaten zidaten ez neukala ezer, arazo muskularra zela eta fisioterapeuta batengana joanda kenduko zitzaidalda. Eta, jakina, mina dagoela agertzen duen mediku txostenik ez badago, esaten duzunak zalantzak sortu litzake ingurukoengan, eta hori gogorra da norberaren-



Stop Bide Indarkeriaren barruan, kontzientziario berbera

tzat. Bizitza nire errealitate berrira egokitu beharraz gainera, "alferra zara", "beti minagaz zaude eta beti kexaka" eta antzekoak entzun behar izan ditut. Horrek txiki sentiarazten zaitu, oso txiki, zeure burua zalantzan ipintzeraino. Eta horixe da egin dezakezun gauzarik txarrena.

Norbera errudun sentitzeaz zabilta. Bai. Eta ni lehenengo egunetik sentitu naiz errudun. Adibide bat ipiniko dizut: ez dakizu zenbat bider damutu naizen gau hartan, kontzertuan, etxera zozer lehenago joan ez izanaz. Eta sarritan zigortu dut neure burua ea zergaitik gurutzatu nuen zebraide hori, kotxea ikusi nuelako, baina nigana heldu aurretik biribilgune bat igaro behar zenez... Gaur egun ez dut gurutzatzen kotxea geratu arte. Eta nire torturarik handiena izan da ezin nintzela istripuaren aurreko Nahikari izan. Ezin nituen gauza berdinak egin eta pentsamendu negatiboak izaten nituen. Baina banekien ezin nuela horrela jarraitu. Aldaketa ez da izan momentu zehatz baten ondorioa, prozesu batena baino. Askok irakurri nuen eta psikologo batek ere ibili nintzen. Orain hobeto nago. Naizenagaz bizitzen ikasi dut. Egun batean oinez hiru kilometro egiten baditut eta hurrengoan bi, ba bi egin ditut eta kito. Hurrengo egunen baten egingo ditut hiru berriro. Egoera onartzeak bizitza aldatu dit. Liburuan alderdi honi buruz ere berba egiten dut. Liburua ez da istripuaren eta minaren kontakizuna bakarrik. Nire barruan eta nire bizitzan izan den alda-

keta ere kontaktzen dut. Orain psikologikoki nahiko indartsu sentitzen naiz. Liburua irakurtzen duenari ere indartsuago sentitzeko balio izatea espero dut.

Non erosi daiteke liburua?

Círculo Rojoren webgunean eskatu daiteke eta Instagram kanal honetan ere eskatu daiteke: @todoloquenoviste.libro. Batzen dudun dirua nire errehabilitaziorako erabiliko dut.

Stop Bide Indarkeriari elkartearen zabilta gaur egun.

Bai, elkarteak komunikazio arduraduna eta kidea naiz. Rosari [Trinidad, elkarteak burua] asko dut eskertzeko. Txarto nengoenean beti deitzen zidan animatzeko, eta galdetzen zidan ea nire testigantza eman gura nuen jendaurrean. Izan ere, elkarteak berbaldiak ematen ditu, testigantzekin. Kontzientziazioa da helburua. Lehen, traumatikoa egiten zitzaidan gertatutakoa oroitu beharra, baina aldaketa bizi eta gero baietz esan nion, egingo nuela. Esperientzia liberagarria zela konturatu nintzen. Hasieran apur bat urduri egoten naiz, baina gainera 40 kilo kendu banitu legez sentitzen naiz amaieran.

Zure tokian zaudela sentitzen duzu?

Bai. 2025ean hasi nintzen nire testigantza ematen. Elkartera aurtengo urtarrilean batu naiz. Oso gustura nago. On egiten dit eta gizarteari on egiten diodala sentitzen dut. Elkarteak hainbat arlotako ekintzak antolatzen ditu; esaterako, hezkuntza arlokoak, ikasleekin. Gizarteak hainbat alderditan eragiten du.

GREMIOEN gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

DEKORAZIOA



JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

ZURGINTZA



leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

ZURGINTZA



ATERPE AROZTEGIA
EGUR ERAIKUNTZAK
TELATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

ELEKTRIZITATEA



ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

ITURGINTZA



UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



aldia ematen ditu.

Patxi Calleiras, flotillako kidea: "Gure kideak besarkatzea utzi ez eta kolpeka hasi ziren"

Flotillako kideak Israelen esku-hartzea eta Loiuko aireportuko karga salatu ditu

Joseba Derteano ELORRIO

Palestinara laguntza humanitaria eramateko azken saiakeran flotillako kide izan diren hainbat ekintzaile herririk herri berbaldiak ematen dabilta egunotan. Patxi Calleiras altsasuarra da eurretari bat. Martitzenean berbaldia eman zuen Elorrioko Ateneoan beste kide batez, eta flotillan bizi izandakoa eta Loiuko aireportuko istiluetan jasandakoa kontatu zuten.

Israelek flotillaren aurkako hainbat operazio egin du. Calleiras lehenengo operazio batean atzeman zuten eta gura zuen baino lehenago bueltatu zen Euskal Herrira. Beraz, zapatuan, Loiuko aireportuan, harrerataldeko kidea zen. Honela kontatu dio bizi izandakoa ANBOTOri: "Ordu bata inguruan Ertzaintza agertzen hasi zen eta guk ez genekien oso ongi zerga-



Flotillako kide bat eta Patxi Calleiras, Elorrioko Ateneoan.

tik. Gero, istiluen kontrako polizia etorri ziren eta segurtasun-hesi bat jarri zuten. Gure kideak hegazkinetik jaistean eta besarkada bat emateko gurgana gerturatzeko hasi zirenean, azken batean horretarako bai-

keunden han, ez ziguten utzi gure kideekin elkartzen. Kideengana joan behar genuenean, kolpeka hasi ziren eta tentsio handia sortu zuten. Momentu polita izan behar zuena erabat kakaztu zen".

Calleiras atxilotuetariko bat izan zen. "Bekainean odola neukan, eta min handia hatz batean", esan dio Anbotori. Ziegara eraman aurretik, ambulatiora joan zen. "Atxilotu zuten beste kide bat ospitalera eraman behar izan zuten", gaineratu du Calleirasek.

Jaurlaritzako Segurtasun sailburu Bingen Zupiriaren adierazpenei ere erantzun die. Zupiriak esan zuen Ertzaintzak ez zuela egoera hori bilatu, baizik eta agenteen kontrako "erasoen" ondorioz hasi zirela. Calleirasen esanetan, ostera, "gezur hutsa" da hori: "Gure kideei ongietorria egitera joan ginen, maiatzaren 4an Cretatik itzuli nintzenean niri egin zidaten moduan. Orduan, gu ere han geundela, aireportuko egoera normala zen eta jende asko zegoen, Bilboko errugbi partidak zirela eta. Joan zen zapatuan, Ertzaintza etorri zenean, eurak hasi ziren gu jipoitzen, eta ez alderantziz. Argi dugu erantzukizunaren ehuneko ehun Ertzaintzarena dela".

Israelen partetik jasandakoa

Flotillan, Calleiraseguz batera, beste sei lagun zihozen: espainiar bi, katalan bi, brasildar bat eta

aleman bat. Israelek Creta inguruan geldiarazi zituen bere ontzia eta beste batzuk. "Ondoren, bi egun pasatu genituen barku-espetxe batean bahituta. Zerbaketa konstanteak, belauniko egon beharra denbora luzez eguzkitan... Barkutik oso modu bortitzean atera gintuzten, kolpeka. 25 bat kide ospitalera joan behar izan ziren, batzuk saihetsak hautsita... Kide batek hankako giharrak izorrotuta zeuzkan, gomazko pilota batekin tirokatu zutelako", esan du Calleirasek.

Flotillaren helburu nagusia Gazara laguntza humanitaria eramatea zen. Ezin izan dute helburua lortu, baina Calleirasek uste du horrelako ekimenek hango egoeran arreta ipintzeko balio duela gutxienez: "Flotillak 54 herrialdeetako partaideak izan ditu. Bahitzen gaituztenean arazo diplomatiko nahiko larria sortzen diogu Israeli. Eta horri esker, Palestinaren arazoari kasu gehiago egitea lortzen da. Tristea da Palestinari kasu egiteko europarrak hara joan behar izatea. Kontziente gara guri egin digutena ez dela ezer Palestinan egunero gertatzen denarekin alderatuta".

Kantariak jaio da Durangon, haur eta gazteen artean kantua bultzatzeko

Aitziber Basauri DURANGO

Ume eta gazteei kantu korala era ludiko, hezigarri eta aberasgarrian hurbiltzeko helburuagaz, Kantariak ekimena hasiko da irailean. Udalak eta Bartolome Ertzila musika eskolak bultzatuta, 7 urtetik gorako haur eta gazteei dago zuzenduta, eta, Arantza Barrenetxea zinegotziaren berbetan, "ondare imma-

rialaren zati den tradizio korala babestea" du helburu. Musika eskolako zuzendari Iker Ruiz de Alegriak esan du 20 ikasle batu direla eta eskualdera zabaltu gura dutela gonbita. Orfeoiko Valentin Sagastizabalek "erlebo faltari irtenbidea emateko aukera" sortuko dela uste du. Kantika Koralak abestuko du Andra Marian, etzi, 18:00etan.



Valentin Sagastizabal, Arantza Barrenetxea, Iker Ruiz de Alegria eta Jesica Ruiz.

Ekainaren 2tik 19ra Euskal Jaiak ospatuko dituzte Durangon

A.B. DURANGO

Datozen aste bietan Euskal Jaiak ospatuko dituzte Durangon. Kultura, tradizioa, musika, kirola eta bizikidetzaren uztartzen dituen egitarau "anitza" osatu dute Durangoko kolektibo, ikastetxe eta tokiko erakundeek laguntzagaz. Ekitaldiak ekainaren 2tik 19ra bitartean izango dira. Asteon egindako aurkezpen agerraldian, Paule Sanchez Kultura eta Euskara zinegotziak denen inplikazioa eskertu du. Eta azpimarratu du "elkarlanetik eta herritarren parte hartzetik eraikitako ospakizuna" dela.

Guztira 30 bat ekitaldi eta jardura batzen dituen egitaraua osatu dute, herritar guztientzat: Silboberrik antolatutako Durango Hiria txistu kontzertua, dantza erakustaldia, herri kirolak, Bogoroditsie abesbatzaren 30. urteurren kontzertua, artisautza azoka eta Sagardo Eguna egongo dira, besteak beste.

Aurtengo Euskal Jaien atariko moduan, Durangoko eskola

umeen sormen lanek Ezkurdi aretoa jantzi dute. Mila sormen lan baino gehiago aurkeztu dituzte Durangoko XVII. Eskolarteko Haurren Marrazketa, Pintura eta Eskulan Lehiaketara, eta denak ikusgai ipini dituzte ekainaren 7ra bitartean. Euskal Jaiak agurtzeko, pilotari eskainitako jardunaldi berezia egingo dute ekainaren 19an.



Euskal Jaietako buruzko agerraldia. UDALA

Carlos García zinegotziak heriotza mehatxuak salatu ditu

E.H. DURANGO

Durango Carlos García zinegotziak (PP) salaketa ipini du Ertzaintzaren X sare sozialean heriotza mehatxuak jaso dituela eta. Sare sozial horretako erabiltzaile batek iradoki zuen Garciak ETAREN biktimak biren ondoan (Jesus Mari Pedrosa eta Dámaso Sánchez) egon beharko lukeela. "Nire kontra oldartu dira, oso mingarria den kontu batez, gainera. Onartezina da, nire heriotza eskatzeaz gainera hil zizuten herritar horien guztien kontrako mehatxuak direlako eta haiek ez daukatelako zelan defendatu", esan du Garciak. Durango Udala akusazio partikular legez batu da salaketara. EAJK, PSE-EEK eta Herriaren Eskubideak "gogor" gaitzetsi dituzte mehatxuak, eta elkartasuna eta babesa adierazi dizkie "zinegotziari eta terrorismoaren biktimak guztiei". EH Bilduk ere gaitzetsi ditu mehatxuak, eta Garciaren kontrako esanak "onartezinak" direla azpimarratu du.

Durangoko aisialdi eskaintza guztia aplikazio bakarrean

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak sakelakoe-tarako aplikazioa sortu du, herriko kultur, kirol eta aisialdi eskaintzaren berri emateko: *Durango Agenda*. Batetik, Durangoko Udalaren ekitaldiak bistaratuko dituzte aplikazioan: Arte eta Historia Museoko erakusketak, Landako Guneko ekitaldiak, San Agustin Kultur Guneko ikuskizunak eta udalak antolaturiko bestelako ekintzak. Bestetik, herriko elkarteek ere aplikazioa erabili ahal izango dute ekitaldien berri emateko. Horretarako, elkarteek informazioa eta argazki bat bidali behar duzute agenda@durango.eus helbidera. Tresna digitala iOS eta Android sistema eragileekin bateragarria da.

Paule Sanchez Kultura zinegotziak nabarmendu duenez, aplikazioa "baliabide moderno eta erabilerraza" da, "kultura eta aisialdiko programazioa eremu digital bakar batean batuko dituen".

Gitarristak eta kantu liburuak aurtengo 'Zornotzan Kantuz' egitasmoko nobedade

Ekitaldian udalerriko kantuzaleak eta abesbatzak batuko dira. 19:15ean hasiko da

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Bariku honetan, Zornotzako kantuzalerik amorratuena kalera irtengo dira abestera. Hitzordu berezia izango da inondik ere; batetik, *Zornotzan Kantuz* egitasmooaren bosgarren edizioa izango delako, eta, bestetik, nobedadeak prestatu dituztelako efemeridea ospatzeko. Izan ere, aurtun lehenengoz, kantu liburuak banatuko dituzte parte hartzaileen artean: 400 eskuliburu, guztira. Eta orain arte ez bezala, gitarrista bik (Saioak eta Aintzanek) kantuzaleei ibilbidean zehar lagunduko diete. Errepertorioan, euskal kantutegiko abesti ezagunak izango dituzte zain, betikoak zein garraikideagoak. 20 abesti pasatxo. "Herriko abesbatza guztiak irtengo gara abestera, baita Otxotea ere", iragarri du Iñaki Gonzalez egitasmooaren bultzatzaileak.



Antolatzaileak, abesbatzeta kideak eta udal ordezkariak aurkezpenan.

leak. Zornoza, Abeskimu, Andra Mari ikastolako gurasoen abesbatza, Xuxurlariak, Nagusien Korala, Dizdira, Ederto txistulari taldea eta Otxotea dira talde horiek. "Aipatzekoa da, hala ere, abesbatzak hor dauden arren

hau guzti hau norbanako bakoitzari eskerrak egiten dela, norbere kantuzaleatasunak egiten duelako hau posible", gaineratu du Gonzalezek.

Hitzordua honako hau da: kantuzaleak Venecia tabernaren

parean batuko dira, 19:15ean. Hortik aurrera, eztarria berotu eta kantuan hasiko dira. Xiberu, Oasis eta El Cojo taberna pareetan egingo dituzte hurrengo geldialdiak. "El Cojo tabernaren aurrean amaitzea ez da kasualitatea, kale estu batean

"Egitasmo hau norbanako bakoitzak egiten du posible"

IÑAKI GONZALEZ

dagoelako eta kantak ozenago entzungo direlako bertan. Ekitaldiari amaiera eder bat emateko modua izan daiteke", azaldu du Gonzalezek.

Ainhoa Salterain alkateak esan du Zornotzan Kantuz "musikatik harago" doala: "Kalean batzeko ekitaldia da, herritarrekin gozatzea, askotariko belaunaldiak batzeko, alaia, giro berezia sortzen duena". Hori dela eta, alkateak herritar guztiak deitu ditu barrikuko ekitaldian parte hartzera.

Süne, Neomak, Chenoa, Latzen eta Ruper Ordorika Zornotzako jaietan

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Zornotzako Karmen eta Santanatu jaiak entzute handiko musika emanaldiz beterik egongo dira. Halantxik iragarri dute asteon Ainhoa Salterain alkateak eta Koldo Bilbao kultura eta kirol zinegotziak. Adin guztietarako 20 kontzertu baino gehiago programatu dituzte, eta Zelaietako parkean eta Zubiondon

ipiniko dituzte eszenatoki nagusiak. Musika talde horietariko batzuk herritarren proposamenen bitartez kontratatatu dituzte, udalak abenduan inkesta bat egin ondoren musika programazioa diseinatzeko.

Zubiondoko parkean El Drogas, Chenoa, Latzen, Süne, Serafin Zubiri eta Zornotzako Musika Banda, Heitxi, Jonkass eta DJ

Rednal egongo dira. Zelaietako agertokian Neomak, Ruper Ordorika, Txapela Brava, Oxabi, En Esenzia eta Txistu Alardea arituko dira, azken hori Betagarriko eta Modus Operandiko Iñaki Ortiz de Villalbak lagunduta. Gainerakoan, herriko plazetan eta aire zabalean Salseo Jaiak Show, 90eko hamarkadako jaia eta Zo Zongó egongo dira, besteak beste. "Jai hauek kulturaren eta musikaren alde egiten dugun apustua islatzen dute", nabarmendu du Ainhoa Salterain alkateak.

Noemi Ruizen kartelak iragarriko ditu Zaldibarko jaiak

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko jaietako kartel lehiaketak badu irabazlea. Huescako Noemi Ruizek lortu du lehenengo saria (250 euro), bigarren saria Ibone Gomez zaldibartarrak irabazi du (150 euro), eta umeen saria Olaia Uribarrik (100 euroko sari berezia). Jai batzordeak ekainaren 22an aurkeztuko ditu aurtengo jaiak.



Kartel irabazlea. NOEMI RUIZ

GAER  **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

"Abadiñoako publikoa ikaragarria da; oso ondo ulertzen dute nire umorea"

ANE LINDANE UMOREGILEA

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Domeka eguerdian 12:30ean, umore eta kritika sozialaz gozatzeko aukera paregabea dago Mendiolan, Ane Lindane umoregile bilbotarraren eskutik.

Ekarriketa hau zure umoreari objektibo bat ipinita hasi gura nuen. Jarriko zenuke zuk adjektiboa?

Umure punkia eta politizatua.

Nondik hartzen duzu umorea egiteko lehengia? Zerk inspiratzen zaitu?

Orokorrean, bizitzak. Pertsona politizatua naiz eta berriak irakurtzen nabil beti. Eta lagunekin beti politikari buruz, feminismoari buruz, transfeminismoari buruz berba egiten dut. Bizitza segun eta zelan ulertzen duzun, errealtatea nahiko txistoso da.

Badago mugarik umorean?

Beti egiten didate galdera hau eta gustura erantzungo nioke drama egiten dutenei ere galde-tuko baliete. Nik beti galdetzen dut: non daude umorearen mugak? Ba, epaitegietan. Orduan, zer gura duzu esatea? Aurreko egunean deklaratzera joan behar izan nuen umorea egiteagaitik, eta barreak aguantatu behar izan nituen. Beraz, epaitegietan ere badago umorea. Batzuetan, oso gauza arraro bat balitz bezala



Ane Lindane.

ulertzen dugu umorea, baina umorea ere komunikatzeko tresna bat da, eta zilegia da, drama zein poesia zein beste edozein tresna legez. Beraz, umorearen mugak adierazpen askatasunak dituen muga berean daude.

Abogados Cristianosek salaketa ipinizun, Arberatze-Zilhekoan (Nafarroa Beherean) "erlijioari irain" egin zeniolakoan. Zer puntutan dago auzia? Epaiketaren zain gaude. Oraindino ez daukagu epaiketarako datarik. Epailearen aurrean deklaratu nuen aurreko batean, eta uste nuen epaileak momentuan

bertan artxibatuko zuela kasua. Baina ez. Honek ez dauka ez hankarik ez bururik. Eta zein da arazo nagusia? Ba hor talde ultrafaxista eta interesatu katoliko bat dagoela, Abogados Cristianos izenekoa, zentzurik bako salaketak ipintzen dituena, beti artista eta umoregileen kontra, eta sekula ere ez pederasten kontra. Eta hori baino txarrago: epaileek onartu egiten dituzte horrelako salaketak. Nik sarritan galdetzen dut: horretarako daude epaitegiak? Gaur egun askoz ere arazo larriagoak daude gure

gizartean, eta epaileek horrelakoekin denbora galtzea arduragabekeria hutsa da.

Domekan Abadiñoa etorriko zara. Zer moduzkoa da publikoa?

Ikaragarria! Eta ez dut esaten ondo geratzearren. Aurrekoan egon nintzenez, izugarri ondo pasatu nuen. Horrelakoetan pentsatzen dut: zer polita den nire lana eta zelako jende zoragarriagaz elkartzen naizen. Hain jende ederrari barrea eragitea luxua da. Durangaldean jendeak oso ondo ulertzen du kodea. Nire iritzi, gipuzkoarrek barrurantz barre egiten dute, ez dakit zer gertatzen zaien, baina kostatu egiten zaie kanporatzea. Baina hemen, Bizkaian, Durangaldean, jendeak badaki barrea kanporatzen, badakite zarata egiten. Euskal Herrian oraindino "stand-up" formatua ikasten gabiltza, bai artistak eta baita publikoa ere. Guretzat fenomeno berria da umore mota hau euskaraz eta formatu honetan egitea, eta publikoa ere badabil ikasten zeintzuk diren kodeak. Eta Abadiñon jendeak argi dauka: barrea izan behar dela gure erantzuna.

Amaitzeko, zergaitik joan behar da domekan Mendiolara?

Despotorratuko zaretelako. Umore punka, feminista eta politizatua gustuko baduzue, etorri. Eta gustuko ez baduzue ere, etorri; ziur nago iritzia aldatuko duzuela. Gainera, katolizismoari gogor emango diot eta epaiketa gastuekin lagunduko didazue.

Bilbora zuzenean doan autobusa Muntzaratzen ere geldituko da

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoako Udalak asteon jakinarazi duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak Muntzaratzeko geltokia Bizkaibuseko A3923 linearen ibilbide guztietan sartzea onartu du. Linea horrek Bilbo eta Elorrio lotzen ditu, eta, Muntzaratzetik igaro arren, orain arte ez zuen geldialdirik egiten bertan. Behin geldialdia onartuta, aldaketa ekainaren 1ean sartuko da indarrean. Eskari hau eskari historikoa da. Horren adibide dira udalak Aldundiagaz egindako bilera guztiak, eta baita iazko udaberrian jaso zituzten 500 sinadurak ere. "Udalak iazko urte hasieran eskatu zuen geldialdi hori egiteko, Muntzaratzeko herritarren aldetik benetako eskaera zegoelako. Hasierean, Aldundiak atzera bota zuen eskaera, geldialdi hori gehitzeak zerbitzua okertuko zuela argudiatuta. Hala ere, udalak behin eta berriro eskatu eta gero eta erakunde bien artean bilerak izan eta gero, Aldundiak aldaketa egitea onartu du", azaldu du Mikel Urrutia alkateak. Bestalde, Edurne Maguregi alkateordeak jakinarazi du lanean jarraituko dutela. "Lanean jarraituko dugu Abadiñoak, eta abadiñoarrek garraio publiko duin bat izateko".

Ekainaren 7an artisau azoka Arrazolan



M.Z. ATXONDO

Hurrengo domekan, ekainaren 7an, artisau azoka egingo dute Arrazolan, Amillenak antolatuta. Azokak 10:30ean zabalduko ditu ateak eta 15:00ak arte egongo da. Arrazolako plazan egingo dute, eta eskuz egindako produktuez gainera, giro polita eta musika izango dira bertan. Sonidero Galerna taldea azoka girtzen arituko da.

Taxi zerbitzua berriro Berrizen, hainbat urtean zerbitzurik barik egon eta gero

M.Z. BERRIZ

Berrizko Udalak jakinarazi duenez, herrian taxi zerbitzua izango dute berriro ere, hainbat urtean zerbitzu hori barik egon eta gero. Markinako 43 urteko taxilari bat arduratuko da zerbitzuaz, eta herritarren beharrezanean erantzutea izango da helburua. Udalak azaldu duenez, Berrizek berriro ere garraio aukera bat izango du, bereziki adineko pertsonentzat, ibilgailu propiorik ez duten herritarrentzat eta udalerritik kanpora joan-etorri zehatzak egin behar dituenarentzat.

Zerbitzua erabiltzeko erreserba telefonoz deituta zein whatsapppe idatzita egin ahal izango da. "Herritarrek lehenengo

egunetik zerbitzua azkar eta erraz erabili ahal izatea izango da asmoa", azaldu du udalak.

Zerbitzuak ordutegi finkorik ez duen arren, taxi gidariak ziurtatu du erabilgarritasun zabala eskainiko duela. Zerbitzu bereziak ere egingo dituzte, alde zehatzetara, aireportura, afarietara edo jaietara joateko, erreserbak egiteko aukera egongo da.

Eskaerari dagokionez, bai udalera kideek eta baita taxi gidariak ere onartu dute agian denbora beharko dela taxiaren ohiko erabilera berreskuratzeko, baina apurka-apurka herritarrek zerbitzua berriro erabil-



Zerbitzu berria Berrizen.

tzea itxaroten dutela. "Badira pare bat urte taxirik ez dagoela Berrizen. Jendeak ahal izan duen modura moldatu behar izan du, baina zerbitzu hau erraztasuna ematera etorri da", esan du taxi gidariak.



DURANGALDEKO GERRAKO HAURREN BILA



Kontsultatu zerrendak: gerediaga.eus

Informaziorik baduzu:

688 63 10 81 (al.-og. 15:00-18:00)
info@gerediaga.eus



Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTO KIDE EKAINENKO ZOZKETAK



Uitzamaren
produktu sorta.



Zelai Hotela
(Zumaia): Talaso saioa eta gosaria barne duen birezako bonua.



Xiberu tabernan
(Zornotza) bi gosari bikoitz.



Mendexa Abentura Parkerako bost sarrera bikoitz.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. (Durango)

MAIATZEKO IRABAZLEAK

Basa take away
Leire Darretxe Urrutxi.

Hotel Areatza
Estibalitz Katarain Azaldegi.

Xiberu tabernan gosaria
Leire Bereziartua Gonzalez
Maite Abendibar Bengoa.

Aukan izozkiak
Jon Badiola Totorikaguena.

Uxarte Sagardotegia
Amala Legarra Iturriaga.

Goitondoko industrialdeko hondakinak Elgoibarko araztegiagaz lotu dituzte

Maialen Zuazubiskar MALLABIA
Uraren Euskal Agentziak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, Mallabiko saneamenduan aurrerapauso erabakigarria eman dute. Oharrean azaldu dutenez, jarduketa honegaz, Goitondoko industrialdetik eta Arandoño auzotik doazen hondakin-urak Ermuko sarean bildu eta garraiatu ahal izango dituzte, az-

kenik Elgoibarko Apraiz Araztegiaren behar den moduan tratatzeko.

Bestalde, lan hauek mugarri bat direla azaldu dute, nabarmen murriztuko dituztelako Ego ibaiaren gaineko presio kutsatzaileak. 24 hilabete behar izan dituzte Goitondoko lan hauek egiteko, eta 3,49 milioi euroko inbertsioa egin dute.



Goitondoko industrialdea.

Gaur arratsaldean irteera Mallabian, industrialdea ezagutzeko

M.Z. MALLABIA
Berbalagunek antolatuta, *Mallabitarron altxorrek ezagutu nahi?* ekimena martxan da. Ekimen horren barruan, irteera antolatu dute gaur arratsalderako, maiatzak 29, Mallabiko industrialdeak ezagutzeko.

Berbalaguneko kideek azaldu dutenez, irteera 18:00etan izango da, Petrilean, eta bertatik Goitondoko poligonora joango dira kotxez. 18:15ean, Hanbre taberna inguruan Felipe Zelaietak aspaldiko poligono giroaren kontaktuzunak izango ditu berbagai. 18:30ean Jose Ramon Olalde, Mallabiko alkate izandakoa, poligonoen zergatiaz eta udal ikuspuntuaz arituko da. Eta, ondoren, Envasa enpresa historikoaren langile izandako Mariasun Mendibek orain 40 urteko lan giroaz berba egingo du. 19:00 aldera, MEK enpresako arduradunak euren enpresaren historiari arituko dira. 19:30ean Arenteiro tabernan luntxa eginda amaituko dute ekimena.

Gerrako umeen ikerketan laguntzera deitu dute Otxandion

A.B. OTXANDIO
Durangaldeko elkarte memoria listak, Intxorta 1937 elkarte, Memory as Transgenerational Care ikerketa taldea eta Gerediaga elkarte Durangaldean gerrako ume izan zirenen ikerketa garatzen dabilta. Azterlana garatzeko, Otxandion ere herritarren laguntza eskatu dute.

Espainiar estatutik kanpora joan ziren 16 urtez azpiko pertsonengan zentratuko dute azterlana, eta orain arte identifikatutako pertsonen zerrendak www.gerediaga.eus atarian dauke ikusgai, herrika banatuta. Udaletxean ere kontsultatu daitezke, eta Otxandioko zerrendan senideren bat falta dela ikusiz gero edo informazioa edo ekarpenen bat helarazi gura izanez gero, Gerediaga elkarteagaz hartu-emanetan ipintzera deitu dituzte herritarrak. Horretarako, info@gerediaga.eus helbide elektronikora idatzi daiteke edo 688 631 081 telefono zenbakira deitu, 15:00etatik 18:00etara.

Iurretako irakurzaletasun lehiaketak sormen lan oparoa batu du

A.B. IURRETA
Iurretako XXIII. Literatur Lehiaketara 239 lan aurkeztu dituzte aurten. Haurren sailean 117 ipuin aurkeztu zituzten, gazteen sailean 109, eta helduenean 13. Joan zen astean lanik onenak saritu zituzten. Txikienen artean liburu sortak banatu zituzten, eta gazte eta helduen artean liburu bonuak. Ume eta gaztetxoek

mailetako parte hartzaile guztiek esker oneko oparia jaso zuten.

Iraia Okina ilustratzailearen irudiekin osatu dute material guztia, saritutako lanekin osaturiko liburuxka tartean. Ainhoa Etxano Sarrionandia iurretarrak idatzi du hitzaurrea. Udalak eta bibliotekak antolatzen dute lehiaketa, Maiztegi eta Juan Orobiogitia ikastetxeen laguntzagaz.



Gazteen sailean eta helduen sailean saritutako sortzaileak. IURRETAKO UDALA

Izurtzako Udalak hainbat lan egingo du kanposantuan



Barruko bidetxoak konponduko dituzte.

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak hainbat lan egingo du Izurtzako kanposantuan. Lanak maiatz amaieran edo ekain hasieran hastea aurreikusten dute. Besteak beste, kanposantu barruko bidetxoak konponduko dituzte. Izan ere, zuhaitzen zuztarrek kalteak eragin dituzte bidetxo batzuetan. Horrez gainera, Erdoitzako ermitan hodi berriak ipiniko dituzte. Udalak 24.600 euroko aurrekontua du lanak egiteko. Iazko urte amaieran, kanpoaldeko arbola batzuetako adarrak ere moztu zituzten.

Mañariak lurraren zientzietako entitateen topaketa nazionala hartuko du asteburuan

Estatuko hainbat elkarte hartu-emanak bultzatu eta jakintzak partekatuko dituzte

Joseba Derteano MAÑARIA

Mañariak Lurraren Zientzietako Entitateen IX. Topaketa Nazionala hartuko du zapatu eta domeka honetan, Hontza Museoa eta Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatuta.

Paleontologiako eta lurraren zientzietako beste hainbat adarretako ikerketa elkarteak batuko dira Mañarian, hainbat gairen inguruko ezagutza eta esperientziak partekatuz. Hala nola Gipuzkoako Mufoni eta Luberrri, Bizkaiko Harridunak, Alicanteko Isurus, Kataluniako Paleo-Logica, Castelloko Vinaros eta Errioxako Garras elkarteak batuko dira.

Erakundeen arteko hartu-emanak sendotzea, lankidetzak bultzatzea eta lurraren zientzien inguruan egiten diren proiektuak eta ikerketak elkarregaz ezagutaraztea dira topaketaren helburua.

Egitaraua

Zapatu goizean harrera ekitaldia egongo da kultur etxean. Ondoren, berbaldi bi egongo dira. Eurretari batean, Hontza Museoko presidente Enrike Huertak museoaren historia kontatuko

du. Eguerdian, 50 bat lagun bazkaritara batuko dira. Arratsaldean, Hontza Museoa eta Angurreta bisitatuko dituzte. Domekan, Urkiolan batuko dira eta parke naturaleko aberastasunak ezagutuko dituzte.



Hontza Museoa da ekimeneko antolatzaileetarikoa bat.

Irteera antolatu dute Asto Trail lasterketako ibilbidea ezagutzeko



Asto Trail lasterketako irteera.

E.H. GARAI

Garaiko Asto Trail mendi lasterketako antolatzaileek jardunaldi bat egingo dute zapatu honetan, maiatzak 30, korrikalarietako lasterketa bertatik bertara ezagutarazteko. Hitzordua 09:00etan ipini dute, plazan. Antolatzaileek armozu txiki bat prestatuko dute, eta ondoren mendi aldera egingo dute korrika, ibilbidea ezagutzeko. Behin zirkuitua amaituta, Garaiko plazara bueltatzean edatekoa eta kopaua izango dituzte zain. Asto Trail lasterketa uztailaren 18an jokatu da.

euskal Jaiak

DURANGO. Ekainaren 2tik 14ra

Durangoko Euskalgintzak autobusa antolatu du Iruñeko manifestaziorako

Ekaitz Herrera DURANGO

Euskalgintzaren Kontseiluak manifestazio nazionala antolatu du datorren ekainaren 13rako Iruñean, euskararen biziberritzean "pizkunde berri bat" eragiteko: Euskaltzaleon Martxa. Antolatzailerik gogorazazi dutenez, "azken hamarkadetan berreskurapen ziklo bat gertatu den arren, geroago eta gehiago dira euskararen

etorkizunaren gaineko kezka eta larritasuna adierazten dituzten datuak eta ikerketak", eta horri guztiari "euskararen biziberritzearen aurkako oldarraldi antolatu bat" ere batu zaiola azpimarratu dute. Martxa 17:00etan hasiko da, hiru lekutatik, hiru zutabe nagusitan banatuta: Antoniuttitik, Runako parkeetik eta Askatasun Enparantzatik.

Durangoko euskalgintzak (ANBOTOk, AEKk, Berbarok, Ibaizabal ikastolak eta EHEk) autobusa antolatu dute Durangotik Iruñera joateko. Autobusa 14:30ean irtengo da, Madalenatik. Buelatiko autobusa 19:30ean irtengo da hiriburutik. Autobusean joateko, ezinbestekoa izango da izena ematea.



Izena emateko, eskaneatu QR kode hau.



EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

POLITIKAN

Freskura pixka bat



IMA GARRASTATXU
EH BILDU

Bero sapa itzela. Azken astean ez dago beste gairik gure ahotan. Batzuek esango dute bero egiten duenean bero egiten duelako kezkatzen garela, hotz egiten duenean hotzgatik, eta euria ari duenean busti garelako. Badu horrek egiatik baina, ukazina da muturreko temperatura eta fenomeno meteorologikoak gero eta ohikoagoak direla gurean ere, aste honetako beroa adibidez. Gainera, tendentzia hau areagotuz joango dela diote aditu guztiek. Eskura dauzkagun baliabideak egokitzen ikastea ezinbestekoa izango da, egoera hauetara aurreratu eta eragina leuntzeko behintzat. Igerilekuen eta ur txorroten irekiera egutegia moldatzeko gaitasuna izatea adibide ona da nire ustetan. Horrez gain, epe ertain-luzerako erabakiak hartzea funtsezkoa da. Durangoko EH Bildun 5 helburu nagusi jarri ditugu horretarako: hirigunetik basoetaraino doan sare berdea osatzea, CO2 emisioak murrizteko plana egitea, biodibertsitatea indartzeko neurriak hartzea, Durangoren erresilientzia klimatikoa handitzea eta, behingoz, birika berdea eraikitzea. Ardatz bakoitzeko proposamen zehatzak ditugu, hurrengo 5 urteetan egingarriak direnak. Datorren astean trantsizio ekosozialerako proposamenean aurkeztuko ditugu. Hilabeteak daramatzagu proposamena ontzen eta, aurkeztu ostean ere, ekarpenak jasotzen jarraituko dugu.

DURANGALDEA ASTEON

"Urte askoan parte hartu dut Egunean Behinen, gehienetan egunero-egunero"

DURANGO Marta Moreno izan da aste honetan Egunean Behineko 'Anboto (Durangaldea)' taldeko saritua. "Urteetan parte hartu dut, eta gehienetan egunero-egunero. Azkenaldian, gainera, oso fin nabil. Egia esanda, oso lehiakorra naiz", azaldu du Morenok.



Marta Moreno.

Zapatuan Esklerosiaren Aurkako Elkartasun eguna egingo dute Abadiñon

ABADIÑO Maiatzaren 30ean jardunaldi solidarioa egingo dute Traña-Matienako plazan, esklerosi anizkoitza edo beste gaixotasun neurologiko edo neurodegeneratiboren bat duten pertsonen eta haien familiei laguntzeko helburuagaz.



esklerosi aurkako elkartasun eguneko antolatzaileak.

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefona / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziki kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.


Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua





ALLUITZ MOTOR

Alluitz kalea, DURANGO
94 620 20 04
www.alluitzmotor.com

Joseba Derteano DURANGALDEA
Berbaroko Laia Gerrikagoitia Rodriguez (Abadiño, 1997) eta Kimuakeko Uxue Esturo Belar (Iurreta, 2006) buru-belarri lanean dabilta aurtengo udalekuak antolatzen. Udalekuek gazteen arteko hartu-emanak eta euskararen transmisioa bultzatzen dituzten onurak nabarmendu dituzte.

Zeintzuk udaleku izango dituzue aukeran?

Laia Gerrikagoitia: Berbaron udaleku finko bi, beste ibiltari bi eta Durangon egiten den Udan Olgetan udaleku irekia izango ditugu. Azken hau goizetan izango da, 4tik 10 urtera arteko haurrekin. Udaleku finkoei dago kienez, iaz Uitzin eta Mendigorrian egin genituen, eta aurren Uitzin egingo ditugu finko biak, Nafarroan. Elkarren segidan izango dira; txikientzakoa egingo dugu lehenengo, Errekarbarri izenekoa, ekainaren 28tik uztailearen 5era, eta ondoren nagusiagoentzakoa, Harrihandi izenekoa, uztailearen 7tik 18ra.

Uxue Esturo: Kimuak Aisialdi Elkartearen hiru udaleku izango ditugu: finkoa, ibiltari txikia eta ibiltari handia. Finkoa Sarrian

izango da, Mungia inguruan, uztailearen 11tik 17ra.

Zer eskainiko duzue udalekuetan?

L.G.: DBH lehen eta bigarren urtekoentzako ibiltari txikian, orain dela urte batzuetako ibilbide bat berreskuratu dugu. Ekainaren 26an Bilbon hasi eta uztailearen 7an Areatzan amaituko da. DBH 3 eta 4koentzako ibiltari handian, Durangotik Lanestosara joango gara. Azken honetan, Audio inguruetatik eta Enkarterritik ibiliko gara. **U.E.:** Ibiltari txikia Lesakatik Leitzara egingo dugu, uztailearen 1etik 11ra, eta handia Lesakatik Elizondora, ekainaren 29tik uztailearen 11ra. Beraz, bietan Nafarroatik ibiliko gara. Handian Zugarramurdi ingurutik ibiliko gara, eta txikian Leitza eta Doneztebe inguruetatik.

Izen-ematea beterik duzue.

L.G.: Beterik, bai! Ibiltari bakoitzean 60 ume daude, eta finkoetan 40 bat. Udan Olgetan txandaka egiten dugu eta bakoitzean 65 bat egongo dira.

U.E.: Kimuak ere beterik dago izen-ematea. Finkoan 30 inguru izango ditugu. Ibiltari txikian 60 ibiliko dira, eta handian 50. Lehenengo biak 50era mugatuta

"Udalekuak gazteak euskaraz bizi diren espazio bihurtzeak asko laguntzen du erabileran"

UXUE ESTURO ETA LAIA GERRIKAGOITIA KIMUAK-EKO ETA BERBAROKO UDALEKUAK

Durangoko Berbaro Elkarteak eta Iurretako Kimuak Aisialdi Elkarteak prest dituzte aurtengo udalekuak. Finkoen eta ibiltarien artean, eskaintza zabala dute

zeuden, baina eskaera oso handia zen eta ibiltari txikia 60ra igo dugu.

Zerk asebetetzen zaituzte gehien udalekuak antolatzetik eta hezitzaile izatetik?

"Asko ikastetxe diferenteetakoak dira eta udalekuetan hartu-emana dute"

LAIA GERRIKAGOITIA

U.E.: Egunak aurrera doazen neurrian umeek batak besteagaz geroago eta hartu-eman estuagoa dutela ikustea asegarria da. Hamar egun intentsoak dira, gauza asko kontuan hartu behar direlako, baina nire kasuan oso egokitzat jotzen dut orokorrean. **L.G.:** Politza da ikustea zelako ilusioa egiten dien ume eta gazteei. Udalekuetan Durangaldeko gazte mordoa batzen da. Asko ikastetxe diferenteetakoak dira eta ez zuten elkar ezagutzen aurretik. Udalekuetan hartu-emana dute sortzen da euren artean.

Eta sarritan udalekuen ondoren ere elkarregaz ikusten dituzu, hartu-emana egin dutelako. Horrelako gauzek ardura guztia konpentsatzen dute.

Estres momentuak ere izango dira...

L.G.: Niretzat udalekuak hasi aurreko egunak dira momenturik estresagarrienak, prestakuntza egunak. Ardura duzu ea dena ondo antolatuta dagoen, ea dena ondo irtengo den...

U.E.: Bai, preskuntza egunak dira gogorrenak. Denbora asko eskatzen du dena behar den moduan antolatzeko. Gauza asko

kontuan hartu behar da. Gero, udalekuetan beti duzu ardura, baina gozatzen ahalegintzen gara. **Udalekuak euskaraz antolatzen dituzue. Zelako garrantzia dute udalekuek umeen hizkuntza ohiturak bultzatzerako orduan?**

L.G.: Hizkuntza baten inguruan eraikitzen diren hartu-emanek

asko laguntzen dute hizkuntza horren erabileran. Udalekuak gazteak euskaraz bizi diren espazio bat izateak asko laguntzen du erabileran. Bere egunerokotasunean euskaraz aritzeko ohiturarik ez duten gazteak udalekuetan euskaraz entzuteak poza ematen du.

U.E.: Hartu-emanak euskaraz izatea asko zaintzen dugu. Lehenengo egunetik azken egunera alde handia ikusten dugu sarritan. Euren artean gaztelaniaz aritzeko ohitura duten kuadrillak euskaraz entzuten ditugu. Eta gurasoek zoriondu egin gaituzte behin baino gehiagotan. Hiz-

kuntza aldaketa hori oso pozgarria da guretzat. Arlo horretan ekinak izateak fruitua ematen duela ikusten dugu.

lazgo polemiken ondoren, udalekuak arautzen dituen dekretu berriak aldaketa batzuk ekarri ditu. Zelan baloratzen duzue dekretu berria?

L.G.: Aspaldi berriztu bako dekretua zen eta beharbada beharrezkoa zen eguneratzea. Baina egunerokotasunaren arazoia iazko gertakariak dira, eta, gure ustez, patxada gutxi-gaz egin dute. Arrapaladan

egin dute, aisialdi taldeak kontuan hartu barik eta dauden errealitateei jaramonik egin barik. Kukulaisi aisialdi taldeen sarea buru-belarri lanean egon da gu informatzen, eta oso eskertuta gaude. Ozaetan topaketa batzuk egin ziren zenbait profesional gazte berba egiteko, eta informatzeko aukera izan genuen.

Zeintzuk balio bultzatzen dituzue udalekuetan?

U.E./L.G.: Natura eta ingurumena, hezkidetzak, euskara, elkarlana... Horiek eta gehiago.



Kimuak Aisialdi Elkarteko Uxue Esturo eta Berbaro Elkarteko Laia Gerrikagoitia.

PYM'S IDIOMAS
SINCE 1974

**IRAKASLE NATIBOAK
MATRIKULA DOAN**

**INGELES
IKASTAROAK**

English Qualifications
Cambridge

946 815 677
623 166 980
pyms@pymssidiomas.com
www.pymssidiomas.com
Murueta Torre 5A, behea
48200 DURANGO

DEBA
SURF
IPAR
IZEN EMATEAK
627 323 135

Surf
EKAINAK 22
IRAILAK 6

**UDAKO ESKOLA
IPARREN**

SURF IKASTAROAK
SURF ETA SURF SKATEKO KANPUSAK
PADDLE SURF IKASTAROAK
MASTER SURFA

LABORAL SURF
IPAR

UR **urdaibai**
Turismo aktiboa eta abentura

Kanoa/Kayak
Urdaibai ki itsasodarraren jostiera kanoa
SUP - Stand Up Paddle

Tel.: 94 627 66 61 / 688 635 190
www.urdaibai.com info@urdaibai.com

Ingeles klaseak

LET'S TALK

675 48 68 05
inglesendurango.es

Google-en bilaketa batek gure kallitatea bermatzen du: 102 iritziz bikain
★★★★★

mendexa
ABENTURA PARK

ABENTURA PARKEA ETA TIROLINA
Guztionezko zirkuitoak

6 Zirkuito
23 Tirolina
78 Erronka zuhaitz artean!

www.mendexapark.com
info@mendexapark.com
688 856 283

TERRAZEN giela



HERRIA

Askatasun etorbidea 28
DURANGO
Tel.: 946 810 513

Astelehenetik barikura 06:00etatik aurrera zabalik, zapatuetan 08:00etatik aurrera eta domeketan 08:30etik aurrera. Pintxoak eta gosariak. Asteburuetan rabak. Giro polita! Zatoz!



XIBERU

Zeilia Gallartzagaitia, 9
ZORNOTZA
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak eguneroko, pintxopotea eguneroko eta afariak asteburuetan. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.



GAUARGI

Dantzari 4 behea,
IURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak, bariku eta zapatu gauetan molleteak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.



ZERO

Andra Mari 6,
DURANGO
Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetako afariak, gure mojitoak eta gin-tonic bereziak.



ERROTA

Intxaurren kalea 54,
DURANGO
Tel.: 946 216 021

Taberna zabalik 07:00etatik 23:00etara. Gosariak, pintxoak, entsaladak eta ogitartekoak. Merendolak. Terraza ederra, Tabira auzoaren erdigunean.



SORGIN

Ibaizabal 4C,
DURANGO
Tel.: 678 586 143

Terraza berria, pintxo berriak, txibierroak, janari minak, errazioak, musika zuzenean. Zatoz eta goza gaitzazu!



ARRIPU



Txibitena 9, DURANGO
Tel.: 602 387 814

Merkatu plaza,
DURANGO

20 tortilla desberdin. Terraza
aurrean eta ostean. Bizikleten
aparkalekua.



IKUSPEGI

Goiuria auzoa 12,
IURRETA
TEL.: 946 67 41 08

Karta eta errazioak. Lagunekin zein
famiagiagaz Durangaldeko paisaiag
gozatzeko aukera paregabea duzue
terrazan. Etorri eta disfrutatatu!



IZURTZAKO HERRIKO TABERNA

Eleizalde 20 Behea
IZURTZA
Tel.: 946 80 89 08

Astelehenetik domekara iberiko
errazioak. Asteburuetan iberiko
errazioak eta errazio beroak.



ZELAIETAKO JUBILATUAK

Solozabal, 1 behea
ABADIÑO
Tel.: 671 286 104

Bariku eta zapatuetan afariak
Domeketan rabak eta zamburiñak
Astelehenetan itxita.



ELORRIOKO BATZOKIA

Urarka 13,
ELORRIO
Tel.: 946 85 56 56

Eguneko menua, plater
konbinatuak eta hanburesak.



IBAIZABAL

Ibaizabal taldea 2B,
DURANGO

Plater konbinatuak, hanburesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.
Barikuetan pintxopotea!



OLAJAUREGI

Kurutziaga 52,
DURANGO
Tel.: 946 200 864

Ekainaren 7tik aurrera, Olajauregiko
terraza berria zabalik!
Karta berria!



LEZURI

Fray Juan de Zumarraga 13,
DURANGO
Tel.: 946 810 858

Egunero gosariak, bazkariak
eta afariak ematen ditugu.
Sukaldea zabalik dago egun guztian
zehar.

TERRAZEN gida



MAÑARIKO TALKA HERRIKOA

Herriko plaza 1,
MAÑARIA
Tel.: 944 35 12 62

Eguneko menua dago astelehenetik barikura. Asteburuan karta eta plater konbinatuak. Animatu eta etorri gurera!



OLONDO JATETXEA

Mendiola auzoa
ABADIÑO
Tel.: 944 740 768
Whatsapp 647 303 010

Eguketik domekara zabalik. Asteburuetako menua. Ogitartekoak. Errazioak. Plater konbinatuak. Zapatu eta domeketan, oilasko errea gozatzeko: etxera eramateko zein hemen bertan jateko! Boliviako plater tipikoak.



TABERNA ZARRA

Trañabarren etorbidea 1,
MATIENA
Tel.: 946 812 012

Zatozte gure terrazara bazkaltzera, afaltzera edo trago bat hartzera! Egunero eguneko menuak eta asteburuetan menu bereziak. Bariku eta zapatu gauez errazioak eta plater konbinatuak. Domeka eta jaiegunetan rabak eta kroketak. Giro aparta!



GOXOA

Trañabarren 9,
MATIENA
Tel.: 946 05 7262

Zapatu eta domeketan bazkariak eta afariak enkarguz. Asteburuetan eta jaiegunetan errazioak eta ogitartekoak.



IBAI ONDO

Bixente Kapanaga 11,
IURRETA
Tel.: 668 505 682

Astelehenetik barikura pintxoak.



LA BODEGUILLA

Dantzari auzunea 6,
IURRETA
Tel.: 944 66 93 57

Astelehenetik domekara bazkariak, eta bariku eta zapatuetan afariak. Martitzenetan itxita.



AXPE

**Ermodo 12
DURANGO**
@axpe_durango

Pintxoak eta afariak egunero udan.
Animatu eta etorri udako
arratsaldeak Axpeko terrazan
pasatzera.



LAGUN TOKI

**Zeletabe 13,
ABADIÑO**
Tel.: 604 348 989

Pintxoak egunero. Etorri tortilla pintxo
gozo bat jatera.



ZAZPI

**Ibaizabal auzunea, 1-1A
DURANGO**
Tel: 944 175 500

Goizeko 8:00etatik aurrera zabalik
Gosariak. Berezitazuna:
raba eta etxeko kroketetan.
Afariak bariku eta zapatuetan
Zatoz eta gozatu uda gure terrazan!



ABARKETERUENA

**Iturritxo 6
Txanporta plaza
ABADIÑO**
Tel.: 693 564 718


Astehenetik barikura goizeko
9:00etatik aurrera zabalik eta
asteburuetan goizeko 10:00etatik.
Afariak bariku eta zapatuetan.
Ogitartekoak. Pintxoak. Gosariak.



LARRANO TABERNA

**Iturritxo Kalea, 7
ABADIÑO**
Tel.: 604 930 047

Afariak bariku eta zapatuetan.
Pintxoak. Ogitartekoak. Gosariak.
Rabak domeka eta jai egunetan
Olagarro broxeta domeka
eta jai egunetan.
Zuzeneko musika hilean behin gurean!



LANDAKO TABERNA

**Txibitena 9
DURANGO**
(Anbulatorio aurrean)
Tel.: 946 80 81 95

Gosariak, tortillak eta pintxoak.
Enkarguak eta ospakizunak. Rabak,
kroketak, patatak eta ortuko
rabak domeka eta jaiegunetan.
Pintxopotea barikuetan.



PERRATXIKA

**Astxiki, 1
DURANGO**
Tel.: 679 894 402

Errazio bereziak astegun
eta asteburuetan.
Saiheskia eztiagaz.
Askotariko kroketak.
Olagarroa *mojo picón* erara.



GARAIKO HERRIKO TABERNA

**San Migel 20,
GARAI**
Tel.: 946 81 25 80

Etorri giro atsegin batean
menu gozo bat jatera.

J.D. DURANGALDEA

Luhartz taldeak proiektu berri eta berezi bat ondu du: Sam Gandarias artzain eta bertso-gileak Ameriketako Estatu Batuetan idatzitako bertso-pa-perak musikatu ditu. Emaitza ekainaren 7ko domekan aurkeztuko dute, 19:00etan, Durangoko Plateruena kultur aterpean. Ez dago aurrez sarrrerarik hartu beharrik. Sarra librea da, lekua bete arte.

Proiektuaren sorburua Joseba Sarrionandiak Gandariasen inguruan egindako ikerketa da. Gandarias (1897-1949) Utah, Nevada, Kalifornia, Idaho eta Oregon aldean ibili zen eta Sarrionandiak hark utzitako bertso sortak eta istorioak bildu ditu *We are plenty in here Euzkadin eginak* liburuan.

Sarrionandiak eta Luhartzek aspalditik elkar ezagutzen dute. Ezer egin ezik bertsoak ahanzturan geratzeko arriskua zegoela eta, eurekin zeozer egin zitekeela proposatu zien Sarrionandiak. Hor du sorburua Plateruenean estreinakoz aurkeztuko duten proiektuak.

Platerueneko emanaldia "kontzertu narratibo" legez definitu



Luhartz taldea emanaldi batean. LUHARTZ

Luhartz taldeak Sam Gandariasen ahotsa berreskuratuko du Platerueneko kontzertuan

Ekainaren 7ko emanaldiak AEBetako artzain eta bertso-gilea izango du oinarri

du Luhartzeko Rafa Iriondok. Musika ez ezik, Gandariasen testuingurua eta historia ere azalduko dizkiote entzuleari, kanta bakoitzak bere zentzua hartu dezan. Publikoa Euskal Herritik Ameriketako artzainen

garai hartako bizimodura eramango duen bidaia izango da. Gandariasen figura ezezaguna zen eta haren garrantzia nabarmendu gura dute. Eta baliteke 'Amerikak egitea' esaera apur bat desmitifikatzeko ere balio

izatea. "Izan ere, bertsoek momentu onak eta txarrak islatzen dituzte, biak", esan du Iriondok. Esaterako, bertso batzuk familia batek Gandariasen egindako enkargua dira. Familia honek Gabonetan etxera bueltatu gura

zuen 11 urtez Ameriketara dirua egin eta gero, baina 1929ko krika gertatu zen eta dirurik barik geratu ziren. Orduan, Euskal Herriko familiari gertatu zitzaionaren berri emateko eskatu zioten Gandariasen. "Urte asko dituzten istorioak dira, baina muinean badute lotura gaur egunagaz, immigrazioa gaur egungo kontua ere bada eta. Orduan haiei gertatu zitzaiena beste batzuek bizi dute gaur egun", argitu du Iriondok.

23. bidaia Ameriketara

Joan zen asteburuan, Luhartz taldea Kaliforniako Bakersfield hiriko jaialdi batean izan zen, euskal diaspora zabala baitago han. Hiru kontzertu eman zituzten. Luhartzek AEBetara egiten duen 23. bidaia izan da hau. Iriondok esan du han kontzertuak ematea "plazera" dela beti, eta euskal kultura eta nortasuna bizirik mantentzeko egiten duten lana balio handikoa dela. "Lan itzela egiten dute euskal dantzari, kulturari eta jaiei eusteko, euretariko asko hirugarren belaunaldiko euskaldunak izan arren. Hori ikusgarria da".

HONTZA EXTREM
[E] HONTZAID ADOINIA FARGA

Tel.: 633 468 947 / www.hontzaextrem.com

L'ATELIER UDA ESKOLA
4 urtetatik aurrera

DANTZA MODERNOA
GARAIKIDEA URBANOA
EKINTZAK JOLASAK

946 216 362 - 662 928 717
latelierescuela@hotmail.es

EKAINAK 22-26
EKAINAK 29-3
UZTAILAK 6-10
UZTAILAK 13-17

zintzilik

Rigging
Sokaskean
Hegan
Arroila
Jausiak

info@zintzilik.eus
Tel.: 652 752 474

www.zintzilik.eus
zintzilik_emozioen_laborategia

camping IRATXE

www.campingiratxe.com
Tel.: 948 555 555

Leku ezin hobea zure oporretarako eta atsedenerako

Aiegi (Lizarralde)



Balneario Areatza



Zirkuitu Termalak
Masajeak
Bikote-Kapritxoak
Erritual naturalak
Egonaldiak Hotelean
Hidroterapia
Estetika & Kosmetika



OPARI
bonuak
2026

Sartu gure webgunean,
aukeratu opari bonua,
inprimatu eta listo!

hotelbalnearioareatza.com

Askatasuna, 50 bis
AREATZA

946 57 27 05 / 946 57 53 81
reservas@hotelbalnearioareatza.com
www.hotelbalnearioareatza.com



OSASUN gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zerbakira

PODOLOGIA
PSE: 214/06

Ainara Urreta Jainaga

GINEN ZAINZTA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**NATUROPATIA
ETA HOMEOPATIA**

Aurora Julia

HOMEOPATIA · NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus

ODONTOLOGIA
PSE:177/26

DURANGO
Clínica dental · Hortz klinika

ODONTOLOGIA INTEGRATIBOA

Ahotik lortu zure osasuna

Artekale, 37 DURANGO
Tel.: 94 604 14 76
gerencia@clinicadentaldurango.com
www.clinicadentaldurango.com

ODONTOLOGIA
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzako hortz klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordulegia:
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

ODONTOLOGIA
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA -
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMÓN) ETA
IKUSEZINA - ODONTOPIEDIATRIA - PADI -
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

(Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

OPTOMETRIA
PSE: 162/13

NAIA
ZABALA
AUZMENDI
11507 kot. 2k.

keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA · HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA · JATORRIZKO ERREFLEKBUAK · FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA · KIROL IKUSMENA · GARUNEKO LESIOAK · UKIREN LENTEAK
- DITTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 · 48240 Berriz · Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

PSIKOLOGIA

gure
Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen diagnostikoa eta esku-hartzea, diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

PSIKOLOGIA

gure
Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko ·
- Estresa kudeatzeko ·
- Zure harremanak hobetzeko ·

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 1D Durango

FISIOTERAPIA
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

FISIOTERAPIA
PSE: 119/13

ZAINDUZ
Fisioterapia · Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Salo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

"Lotura duten istorio asko daude eta puzzlea ondo osatzeak denbora eskatu dit"

MARKEL SANCHEZ ZELAIA IDAZLEA

Balizko iraultza baten ondorengo gizartea irudikatu du 'Sorbatza' nobelan. Durangoko Hitz liburu dendan aurkeztuko du, ekainaren 5ean, 19:00etan

Aitziber Basauri DURANGO

Markel Sanchezek bere lehenengo nobela argitaratu zuen apirilean, *Sorbatza*. Zapalkuntza guztiak gainditu dituen etorkizun bateko gizartean kokatu du eleberria. Bertan, gazteek harago joan gura dute eta Sorbatza kolektiboa sortuko dute, artearen bitartez mundu askeago bati ateak zabaltzeko. Durangarra pozik dago orain arteko feedbackagaz. Dena dela, nobelak bere bidea egin eta gogotsu dago kritikak entzuteko. Mireia Delgadok lagunduta, etxean aurkeztuko du, datorren astean.

Zure lehenengo nobela idaztera animatu zara. Zelakoa izan da sortze prozesua?

Aspalditik idatzi izan ditut testu laburrak, beti niretzat edo lagun artean geratu direnak. Baina banuen ideia bat buruan: zelakoa izango ote zen kapitalismoa eta zapalkuntza guztiak gainditu dituen gizartea etorkizun batean. Zein baldintza berri sortuko litzatekeen sormenerako edo sorkuntzarako hartu-emanetan; zein gatazka eta eztabaida egongo litzatekeen. Hortik tiraka idazten hasi nintzen, eta ikusi nuen nobela baterako ideia egon zitekeela.

Proiektua literatur beka baterako sortu nuen, eta irabazi ez nuen arren, Elkar argitaletxeko Xabier Mendiguren—epaimahai-kide izan zen—nigaz hartu-emanetan ipini eta nobela garatzera animatu ninduen. Hiru urteko prozesua izan da, espero nuen baino luzeagoa. Baina pozik nago emaitzagaz.

Zein da trama?

2.054. urtean gertatzen da, balizko iraultza baten ondorengo gizartean. Mundu mailako eraldaketa handi baten ondorengo gizartean, gazte talde batek Sorbatza kolektiboa sortuko du, artearen bitartez mundu askeago eta berriago bati ateak zabaltzeko asmoz. Testuinguru horretan, belaunaldi talka sortuko da, batez ere: gazteek aurreko belaunaldiaren lorpenak gutxietsiko dituzte eta gizarte eredu horri inpu gnazio bat egingo diote. Au-

"Belaunaldi talka, egoa, boterea, artea, sorkuntza... ageri dira. Implizituki lilura ere txertatu dut"

rreko belaunaldikoek ez dituzte gazteen kritikak ulertuko eta erasotzat hartuko dituzte. Trama horren barruan, heriotz arraro bat gertatuko da eta ikerketa bartzorde bat sortuko dute heriotza argitzeko. Sorbatzako ki-deak dira susmagarri nagusiak.

Auskalerrian gertatzen da trama, Harkaitz Canok hitzaurrean dioenez.

Bai. Nobela Euskal Herrietik imajinatu dut, baina etorkizuneko Euskal Herri imajinario batera eramatu dut, Auskalerrira. Horrek errealitate gehiago aldentzen lagundu dit. Harkaitz Canok hitzaurrea idaztea zelanbaiteko bermea edo bultzada da nire moduko hasiberri batentzat, eta pozarren eta oso eskertuta nago.

Nobela antiutopikoa dela diozu.

Gurea baino hobea den etorkizun bat planteatzen dut nobelan (lan gutxiago egiten dute, zapalkuntza nagusiak gainditu dira, krisi klimatikoa kontrolatu da...). Nonork esan dezake hori utopia dela, eta, beraz, nobela utopikoa dela. Eta hala izango da hainbaten. Baina, aldi berean, antiutopikoa da: oraingo ikuspuntutik utopia den gizarte eredu inpu gnatu egingo dutelako gazteek, eta horrek belaunaldien arteko



Markel Sanchez, liburua eskuetan duela.

gatazka sortuko du. Utopiak utopia izateari utziko dio.

Formatu berezian dago idatzita.

Liburuan ikerketa baten emaitza topatuko dugu, batez ere, pertsonaien testigantzekin osaturikoa. Hain zuzen ere, hilketa kasuagaz eta Sorbatzako kideekin duten hartu-emanen kontatuko diguten pertsonen testigantzak dira, eta horiekin gizarte hori zelakoa den ulertuko du irakurleak; Sorbatza zer den eta inguruan sorturiko nahaste-borrastea ulertuko du. Nobela korala da; pertsonaia asko daude eta denek osatzen dute

"Gazteek aurreko belaunaldiaren lorpenak gutxietsi eta gizarte eredu inpu gnatu dute"

nobela. Lotura duten istorio asko daude eta puzzlea ondo osatzeak denbora eskatu dit.

Istorio txiki askok osatzen dute 'Sorbatza', eta hainbat gai jorratzen da bertan.

Belaunaldi talka, eragile politikoaren barruko gatazkak, boterea, egoa, artea, sorkuntza, bidaiak... ageri dira. Implizituki, lilura txertatzen ahalegindu naiz. Gaur egungo gizartean topatzen gatzax den lilura, eta igual beste batean aurkitu genezakeena. Pertsonaia askok lilura bat dute kontatzeko moduan edo egindako gauzetan, liluratuta daude pertsona edo ideia batez. Badago baten bat liluratuta zegoena eta orain desentzatu berba egingo diguna. **Baduzu buruan beste proiekturik?** *Sorbatzak* zer zeresan sortuko duen gogoz nago. Oraingoz, ez dut idazle anbizioren, ez dut ibilbide baten hasiera lez planteatzen.



anboto

TOKIKOM LIGA

egunean behin?

Anbotogaz jokatzek saria dakar!



OSATU ZURE PROFILA ETA IRABAZI!

Parte hartu EguneanBehin-eko Tokikom Ligan ANBOTO (DURANGALDEA) taldeagaz

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 29

- **DURANGO 'Espazioaren hustura'** Jorge Oteizaren obra. Arte eta Historia Museoan, irailera arte.
- **DURANGO XVII. Eskolarteko Haurren Marrazketa, Pintura eta Eskularen Lehiaketako lanak** Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatutako erakusketa, Ezkurdi erakustaretoan, ekainaren 7ra bitartean.
- **DURANGO 'Bi ilunabarreko eguna'** Aire zabaleko erakusketa, ekainaren 1era bitartean.
- **DURANGO 'Hitzez eta Ahotsez'** irakurraldi girotua. Plateruena Kultur Arteoan, 16:00etatik 22:00etara.
- **DURANGO Ganbera musika kontzertua** Bartolome Ertzillaren eta Leioako kontserbatorioaren arteko trukea. Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan, 18:30ean.
- **ELORRIO Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Topaketa** Harrera, 16:00etan. Tailerrak (okupazioa, street boulderra, soinua, zibersegurtasuna, txispas, fanzinea, bertsoa, muralgintza, dance halla, antzerkia, boxeo...) eta mahai-inguruak (musika kolektiboak, arriskuan dauden gaztetxeak, gaztetxeetako irakurle taldeak eta euskararen aldeko borroka gaztetxeetatik), 18:00etan. Azoka gaztetxeroa, 19:30etan. Afaria, 21:00etan. Zirkua + Gaztetxeak bertsotan + Kontzertuak: Maga Rude eta Meison, 22:30etan. Elorrixoko Gaztetxean.

ZAPATUA 30

- **ABADIÑO 'Eklipseen misterioak'** Tailerra. Izena emateko eajuria@abadiano.

eus helbide elektronikora idatzi behar da. Txanporta kultur etxean, 11:00etan.

- **ABADIÑO Elkartasun Jaialdia** Esklerosiaren Aurkako Elkartasun Jaialdia. Kirola, abesbatzak, dantzariak, txistulariak, eskulanak, musika, DJa, bizikleta marxa... Traña-Matiena plazan, egun osoan zehar.
- **ABADIÑO 'Eklipseak: argia eta itzalen ikuskizuna'** Berbaldia. Hizlaria: Virginia Garcia (Aranzadi elkarte), Errota kultur etxean, 18:00etan.
- **DURANGO BBK Live Herrian** Kontzertua. Amaiurtxu + Eider + Gar + Heitxi + Kiliki + Los Fresones Rebeldes + Mala Gestion + Mississippi Queen & The Wet Dogs + Mujeres + Olatz Salvador + Oslo Ovnie + PILT + Santa Salut + Wau y los Arrrghs!!! Ibaizabal, Benita Uribarrena parkean eta Ezkurdi plazan, 13:30etik 23:00etara bitartean.
- **ELORRIO Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Topaketa** Gosaria, 09:30ean. Hausnarketa kolektiboa, 11:00etan. Pintxada: Delko, 13:30ean (marianito edana ere antolatu dute). Bazkaria, 15:00etan. Ondoren, La Ruina. Kantaldia: Arantza, 17:00etan. Gaztetxeen aldeko manifestazioa, 19:00etan. Ondoren, ekitaldia. Kontzertuak: Skabidean + Mateo Zikuta & El Garto + Maixa Ta Malakias + Dena + Eztanda + Lee Kore + Aurrez Aurre, 20:00etan. Dj-ak: Xaukena Xauk + GR3M + DJ Zatzaz + Basajaun Sound System + Mangualazo en el Regazo. Elorrixoko Gaztetxean.
- **MALLABIA Udaberriko kontzertua** Mendibil Abesbatza (Mallabia) + Buhaminak Abesbatza



EUSKAL HERRIKO KALE ARTEEN ELKARTEA (ARTEKALE)

ZALDIBAR Antzerkia Barsanti konpainiaren azken lana ikusteko aukera egongo da Zaldibarren: *Kodizia. Late Nigth* kale antzerkia. Juanjo Otero, Aritza Rodríguez eta Pako Revueltas aktoreek plazaratuko dute antzelana. Udaletxeko plazan, maiatzaren 29an, 22:00etan.

(Baiona). Andra Mari elizan, 19:00etan.

- **ZORNOTZA Kontzertua** Jesus Guridi Orkestra. Zornotza Aretoan, 20:00etan.
- **ZORNOTZA Zornotzan Kantuz** Egitasmoaren bosgarren edizioa ospatzeko saio berezia. Gitarrista bik (Saioak eta Aintzanek) kantuzaleei ibilbidean lagunduko diete eta parte hartzaileen artean 400 kantu liburu banatuko dituzte. Venezia tabernaren parean, 19:15ean.

DOMEKA 31

- **ABADIÑO Ane Lindane** Bakarriketa. Mendiola auzoan, 12:30etan.
- **DURANGO Durangon kantari** Euskal kantutegi tradizionala, modernoa eta beste hizkuntza batzuetako abestiak zabaltzeko ekimena. Josepa Kalez Kale taldeak girotuta. Merkatu Berrian, 12:30etan.
- **DURANGO Kantika Korala** Kantariak egitasmoaren barruan antolatutako kontzertua. Andra Mari elizan, 18:00etan.
- **IURRETA Bizikleta Eskola Topaketa.** Bixente Kapanaga kalean, 10:30ean.
- **OTXANDIO V. Umeen Dantzari Eguna** Dantza taldeen harrera, 11:00etan.

Kalejira, 11:30ean. Alarde nagusia, 13:00etan. Bazkaria, 14:00etan. Erromeria, 16:30ean.

MARTITZENA 2

- **DURANGO 'Loraldia eskola'** *Bidelagunak-7 Kantu eta Xabier Amuriza Pastoral* emankizunak egingo dituzte (gonbidapenak Arte eta Historia Museoan). San Antonio ikastetxeak antolatuta. San Agustin kulturgunean, 17:30ean.
- **ZORNOTZA 'Bizitzako gorputza: osasun integralaren subiranotasuna menopausiaren ondoren'** Eliezer Ruizek gidatutako tailerra. Aurretik izena eman behar da, Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) edo QR kodearen edo Zornotzako Udalaren webgunearen bitartez. Antzinako Musika Eskolan, 17:30ean.

EGUAZTENA 3

- **ELORRIO 'Kaos geopolitiko. Un mundo sin reglas'** berbaldia. Hizlaria: Juanjo Alvarez Rubio, Nazioarteko Zuzenbidean katedraduna. Kainaberak antolatutako

hitzaldi zikloaren barruan. Iturri kultur etxean, 18:00etan.

EGUENA 4

- **MALLABIA 'Proliferación de Lineas de Alta Tensión. Posición garantista del ayuntamiento'** Berbaldia. Kontzejuzarrean, 18:00etan.

BARIKUA 5

- **DURANGO Taupa. Auzoko Elkarrizketa** Solasaldi irekia hizkuntza eta kultura aniztasunaren inguruan aritzeko, euskara erdigunear kokatua. Kurutzasantu museoan, 17:30etik 20:00etara.
- **DURANGO Euskal Jaiak XV. Peter Memoriala Pilota Txapelketako finalerdiak.** Durangoko Pelotazale Elkarteak antolatuta. Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan, 19:30ean.
- **IURRETA 'Como la vida misma'** La Sombra Teatro konpainiak aurkeztutako antzezlan. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.
- **MALLABIA Ander Martinen Oroimenezko I. Frontenis mistoa** Herritarrentzat antolatutako frontenis txapelketa. Frontoian, 18:30ean.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Yo no moriré de amor
Domeka 31: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

El drama

Barikua 29: 18:00, 20:30.
Zapatua 30: 19:30, 21:30.
Domeka 31: 19:00.
Astelehena 1: 18:00, 20:15.
Martitzena 2: 18:00, 20:15.
Eguaztena 3: 19:00.
Mallora confidencial
Barikua 29: 18:00, 20:30.
Zapatua 30: 19:30, 21:30.
Domeka 31: 19:30.
Astelehena 1: 18:00, 20:15.
Martitzena 2: 20:15.
Eguaztena 3: 19:00.
Corredora
Barikua 29: 20:30.
Zapatua 30: 17:30, 21:30.
Domeka 31: 20:00.
Astelehena 1: 18:00.
Martitzena 2: 18:00, 20:15.
Eguaztena 3: 19:00.
Cowgirl
Barikua 29: 18:00.
Zapatua 30: 19:30.
Domeka 31: 18:00.
Astelehena 1: 20:15.
Martitzena 2: 18:00.
Saliendo del nido
Zapatua 30: 17:30.
Domeka 31: 17:30.
Fleak
Zapatua 30: 17:30.
Domeka 31: 17:30.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA


Pillion

Zapatua 30: 20:00.
Domeka 31: 20:00.
Astelehena 1: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Todo lo que fuimos
Domeka 31: 20:00.
Astelehena 1: 20:15.
Los legendarios
Domeka 31: 17:00.



BakQ



IRURI ALTZERREKA
MARTINEZ

Gutxienez 12 karaktere. Horietatik bat, bederen, letra larria izan behar da. Iku bat sartu behar da derrigorrean, eta baita minuskula bat ere. Egin zure konbinazioa. Izan originala. Ez dadila konplikatu egia izan, bestela ez duzu gogoratuko eta. Ez dadila sinpleegia izan, badaezpada. 19 urterekin egingo duzu, Osakidetzako osasun-karpetan sartzeko, oso ondo zer den jakin gabe. Geroago, oposizioko izen-ematerako beharko duzu, errenta aitortpena egiteko edo etxebizitzaren alokairurako dirulaguntza eskatzeko. Nire buru karratuari kosta egiten zaio ulertzea nola kode magiko horrek hainbeste tramite egiteko balio dezakeen.

Z generazioari sare sozialean abilak izatea egotzi digute. Hala izango da, agian. Burokraziari dagokionean, baina, belaunaldion arteko adostasun osoa lortuko genukeela esatera ausartuko naiz: guztiok gorroto dugu. Burokraziak batzen gaitu. Kanpaina bateko eslogana izan daiteke. Alferkeria izango da, ezjakintasuna, interes falta, ez ulertzeko beldurra... Dena delakoa. Gainera, aipatutako zerrendari halako gestioak egiteko hezkuntza gabezia gehitu behar zaio. Eskola curriculumean sar dezakegu: inork egin nahi ez dituen baina helduaroan beharrezkoak diren izapideak. Zenbaiti bizitza erraztuko lizuke.

"Zegama-Aizkorri txikitatik izan dudana ametsa izan da, eta asko disfrutatu dut"

IREDER ANGULO ELEXPE MENDI KORRIKALARIA

Jone Guenetxea DURANGO

Ireder Anguloren ametsa egia bihurtu zen orain aste bi Zegama-Aizkorri lasterketan partu hartu zuenean. Mendizale amorratua eta eskalatzailer trebea da. Udan furgoneta eta mendia uztartuko ditu.

Zer dauka Zegama-Aizkorriko beste lasterketa batzuek ez daukatena?

Zegama ez litzateke ezer bere publiko barik. Santi Espirituko, Andraitzeko, Aratzeko zein Aizkorriko igoeretan batzen den zale kopuruagaitik da batez ere hain ezaguna lasterketa. Hala ere, harrigarria da beste leku askotan ere zenbat jende batzen den. Gainera, aurten deskubritu dut zeinen polita den lasterketa bera. Kobazulo bat, landa ederrak, mendi tontorrak... Ingurua bera ere eder-ederra da.

Zelan bizi izan zenuen lasterketa?

Oso emozionatuta. Txiki-txikitatik izan dudana ametsa izan da eta asko disfrutatu dut. Inguruak ere bertan izatea, kuadrillakoak eta familia, zirrargarria izan da. Niretzat urteroko hitzordua izan da. Orain hamaika urte hasi nintzen familiagaz joaten, ikustera eta animatzera, asteburu-pasa. 2017an junior kategorian parte hartu nuen.

Denbora marka ala esperientzia, zer izan da garrantzitsuagoa zuretzat?

Dudarik barik, esperientzia. Aurreko egunetan buruari bueltak ematen hasten zara, "marka hau edo bestea egin dezaket", baina Aratzen gora hauxe pen-



tsatu nuen: "Zertan nabil ni erlojuari begira?". Erlojuari jaramonik egin ez, eta disfrutaztea izan nuen helburu handik aurrera. Horrela bizi izan nuen. **Egin duzu entrenamendu berezirik?** Ez dut horretarako astirik izan, hiru aste lehenago esan zidaten-eta dortsala neukala. Aurreko astean Nafarroako lasterketa batean parte hartu nuen eta nahiko ondo ibili nintzen. Horren ondoren jakinarazi zidaten parte hartu nezakeela eta neukan maila mantentzen ahalegindu naiz, asteburuetan entrenamen-

Motzean

Mendi bat?

Astxiki.

Miresten duzun korrikalari bat?

Aita eta ama.

Mendia ala hondartza?

Deskantsu aste honetarako, hondartza.

Korrika egiteko, hotza ala beroa duzu gurago?

Hotza.

du luzeagoak eginez. Aste bi lehenago Zegamara joan nintzen, bigarren zatia egitera. Astebete lehenago ere joan nintzen, lehenengo zatia egitera. Astean behin Gernikako gimnasio batera joaten naiz, lehengusina-rengana. Astean zehar mantentzeko lana egin dut. Hortik kanpora, ez daukat entrenamendu espezifikorik. Gogoaren arabera egiten dut.

Zein beste lasterketa dira zure kuttunak?

Iaz Mañaritik Atxetara egin nuen eta oso polita iruditu zitzaidan, nahiz eta gogor-gogorra izan. Astakeria bat da! Hiru Haundiak ere proba polita da.

Beste kirol erronkarik?

Lasterketa bitan parte hartzeko asmoa dut. Hiru aste barru, Izaban antolatzen duten Camille Extremen lehiatuko naiz; 32 kilometroko proba da. Eta irailean Mañaritik Atxetara lasterketan.

Ziur mendiagaz loturiko planen bat izango duzula udarako.

Alpeetara joango naiz, furgonetan, aste birako. Eta gero Piriñoetara, beste astebeterako.

Eskaladan ere aritu izan zara.

Bai, baina gaur egun nahiko utzita daukat. Familiagaz joan zen asteburuan egon nintzen eskalaten. Korrikan oso motibatuta nabil orain, baina hori uzten dudanean ziur eskaladara bueltatuko naizela. Neguan ia asteburuero eskiatzera joaten gara, baina ezin denera heldu!

Amets bat korrikalari legez?

Amets bi izan ditut. Bata aitagaz Hiru Haundiak egitea zen eta urrian egin nuen. Oso pozik nengoen horregaz. Eta bigarre-na Zegama-Aizkorri zen, eta hori ere bete dut. Beste ametsen bat izan daiteke Alpeetan edo Dolomitetan lasterketaren batean parte hartzea.

PABILIOIA SALGAI

lurretan, Mercadona ondoan

1.190m²



Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com



